

zinegabonak

2014 > abenduak
22-23-24-26-27-28

2015 > urtarrilak
3-4

BILBO

Golem Alhóndiga
EiTB-Multibox aretoa

DONOSTIA

Printzipe Zinemak

GASTEIZ

Florida Zinema

IRUÑEA


Golem Baiona

URRUÑA

Cinéma Itsas Mendi-La Corderie







Zinegabonak zikloa iaz hasi genuen, Gabonetan haurrentzako zinema Euskal Herriko hainbat aretoetara eramateko asmoarekin. Euskadiko Filmmategiak eta Zineuskadik antolatutako proiektu honek bat egin nahi du ziklo berriak hasten diren, senitarteko harremanak estutzen diren, eta noski, oparietan asko pentsatzen den egun berezi hauekin. Hain zuzen, opari kutsu hori du ziklo honetako sarreren euro bateko prezioak; bigarren edizio honetan mantentzen dugun prezioa, alegia.

Hala ere, aurtengo berrikuntzak nabarmenak dira: bi asteburutan izango dira filmak (abenduarien 27-28an eta urtarrilaren 3-4ean), EITB Multibox aretoko proiektzioak gehitu dira egitarauan eta Lapurdira ere iritsi gara Urruñako Itsasmendi zinemarekin elkarlanean. Ez da lan makala: lehenengo edizioko 8 sesioetatik aurtengo 24era igaro gara, eta euskararen mapa bere osotasunean irudikatuko dugu.



**Zinemaz gozatu ezazue.
Urte eta zinema berri on Zinegabonak-ekin!**

BILBO EiTb - Multibox aretoa
2014/12/23 16:30 h.



AITA ZONBIA NAIZ

Ehorztetxe batean bizi den nerabe gotiko bat, egun batetik bestera, zonbi bilakatuko da eta helburu bakarra izango du bere bititza-heriotzean: gaiztakeriaren aurka borroka egitea.



Kalifikazioa:

Zazpi urtetik gorakoentzat

Zuzendaria:

Ricardo Ramón eta Joan Espinach

Urtea:

2011

Iraupena:

80 minutu

Gidoia:

Daniel Torres

Produkzioa:

Digital Dreams Films

Sariak: Goya Sariak 2011:
Animaziozko Film Onenaren Saria

URRUÑA

2014/12/27 11:00 h.

GASTEIZ

2015/01/04 11:00 h.



BLACKIE & KANUTO

Blackie ilargira joatearekin tematuta dagoen ardi beltza da. Kanuto, berriz, Blackierekin itsututa dagoen artzain txakurra da, baina ez du kohetearen kontua entzun ere egin nahi. Azkenean, bidaiari ekitea erabakiko dute eta bidean beste lagun askorekin topo egingo dute: behi kantariak, otso limurtzailea, legez kanpoko armiarma etorkinak, hegazti hippyak eta kohete bat aieratzeko prest dagoen txakur talde bitxia. Pinky, Godzillaren itxurako arrosa koloreko ardi erraldoia, hori galarazten saiatuko da



Kalifikazioa:

Adin guztientzat

Zuzendaria:

Francis Nielsen

Urtea: 2012

Iraupena: 84 minutu

Gidoia: Angel E. Pariente

Produkzioa: Art'Mell, Baleuko, S.L., Lumiq eta Talape, S.L.

URRUÑA

2015/01/03 11:00 h.



BRAM BARRABAS

Bram sei urteko haurra da eta ez da inoiz geldirik egoten. Alaia, kementsua eta abenturazalea da. Bera inguratzen duen munduak asko pentsarazten dio, eta izen onenen eta hitz onenen bilduma ari da osatzen liburuxka batean. Bram handien eskolara joateko desiratzen dago, baina Fish Jaunaren gelan tokatu zaio. Bere irakasle berria oso zorrotza da eta ez zaio axola Bramen barne mundua. Bram, geratu gabe mugitzen da, eta ez da sekula eskolako lanetan kontzentratzen. Fish Jaunak ahalegin guztiak egingo ditu Bramek behar bezala egiteko gauzak. Bramen gurasoentzat oso zaila izango da semearen zoriontasunaren eta irakasle berriaren arteko oreka lortzea.



Kalifikazioa: Adin guztientzat

Zuzendaria: Anna van der Heide

Urtea: 2012

Iraupena: 83 minutu

Gidoia: Tamara Bos

Produkzioa: Bos Bros. Film & TV Productions, Benelux Film Distributors, Inspire Pictures, Algemene Vereniging Radio Omroep (AVRO) eta Cinema Junior

Aktoreak: Coen van Overdam, Katja Herbers, Tjebbo Gerritsma, Roosmarijn van der Hoek, Isabelle Smit, René Groothof, Egbert Jan Weeber, Koen Borkent, Merel Polat, Dick van Oosten, Kees Schiferli eta Ria Eimers

BILBO GOLEM ALHÓNDIGA
2014/12/28 11:00 h.

IRUÑEA
2015/01/03 11:00 h.



DINOSAUROEN ARTEAN

Historiaurreko Alaskan kokatutako istorio honetako protagonistak Patch dinosauro xarmagarria eta bere familia dira. Patch kumaldiko txikiena da, eta inork ez du uste urrutira iritsiko denik. Baina Patchek izaera indartsua eta bihotz handia ditu; beraz, indar físico eza irmotasunarekin konpentsatuko du. Patchek eta bere familiak urteroko migrazioa abiatuko dute, janari bila. Bidaia zirrargarria izango da, arriskuz betea, baina bidean lagun eta abentura ugari aurkituko dituzte.



Kalifikazioa: Adin guztientzat

Zuzendaria: Barry Cook eta
Neil Nightingale

Urtea: 2013

Iraupena: 87 minutu

Gidoia: John Collee eta
Theodore Thomas

Produkzioa: Animal Logic,
BBC Earth eta BBC Worldwide

DONOSTIA

2014/12/27 11:00 h.



DRAGON BALL Z; BATTLE OF GODS

Maji Booren aurka borrokatu eta urte batzuk geroago, krisi batek mehatxatu du lurra. Bills, txikizioaren jainkoa, bere loaldi luzetik esnatu da. Saia batek Freezer garaitu duenaren zurrumurrua entzutean, Bills haren bila abiatu da. Hain etsai indartsua aurkitzeaz hunkituta, Gokuk erronka jo dio txikizioaren jainkoari, baina ezinean dihardu jainkoaren ahalmena izugarritzkoa baita. Hartan, Billsek agur-hitz kezagarriak jaulki ditu: “Lurrean izango ahal da norbait txikitzea merezi duenik!”. Goku, Vegeta, Gohan eta lurreko gainerako gerrariak izango ote dira gai aurrekaririk ez duen indar txikitzaile hori geldiarazteko?



Kalifikazioa: Adin guztientzat

Zuzendaria: Masahiro Hosoda

Urtea: 2013

Iraupena: 85 minutu

Gidoia: Yūsuke Watanabe
(Akira Toriyamaren komikian oinarrituta)

Produkzioa: Toei Animation

IRUÑA
2014/12/27 11:00 h.

GASTEIZ
2014/12/28 11:00 h

BILBO GOLEM ALHÓNDIGA
2015/01/03 11:00 h.

DONOSTIA
2015/01/04 11:00 h.



ERNEST & CELESTINE

Ernest basoan bizi den hartz handia da eta musikaria da ogibidez. Neguko lozorro luzetik esnatzean, goseak amorratzen abiatu da hirira sabela betetzeko zerbaiten bila, baina musikak ez dio jaten ematen. Zaborrontzietan jaki bila ari dela, Celestine sagutxo ezagutuko du. Bai Ernestek bai Celestinek elkarren laguntza beharko dute euren bizimodua aldatzeko. Hartza eta sagua bizi diren gizarte zorrotzetan, bi lagunok hainbat arau puskatu eta inguru osoa hankaz gora jarriko dute euren laguntasunari eusteko.



Kalifikazioa: Adin guztientzat

Zuzendaria: Benjamin Renner,
Vincent Patar eta Stéphane Aubier

Urtea: 2013

Iraupena: 80 minutu

Gidoia: Daniel Pennac (Gabrielle
Vincenten liburuan oinarrituta)

Produktzioa: La Parti Productions,
Les Armateurs eta Maybe Movies

Sariak: Annie Sariak 2013: sei
izendapen Satellite Awards 2013:
Animaziozko Film Onenaren
izendapena Cannesko Jaialdia 2012:
Izendapen Berezia (Quinzaine des
Réalisateurs) Cesar Sariak 2012:
Animaziozko Film Onena Gijongo
Jaialdia 2012: Animaziozko Film
Luzeen Sail Ofiziala

URRUÑA

2014/12/28 11:00 h.



FREDDY IGELDEGI

Txikientzat ez da erraza helduekin bizitzea; 10 urteko Victor eta bere lagunentzat, adibidez. Euren mundua heldu serioz josita dago, eta gainera, Freddy Igeldegi herriko harroputzari aurre egin behar diote. Egun batean, zirkoa iritsiko da herrira eta zuzendariak *Kanoi Erregeak* emanaldia iragarriko du. Era berean, herritar guztiak gonbidatuko ditu euren talentu berezia erakustera lehiaketa batean parte hartuta.



Kalifikazioa: Adin guztientzat

Zuzendaria: Peter Dodd

Urtea: 2012

Iraupena: 81 minutu

Gidoia: Vicki Berlin, Søren Danielsen, Peter Dodd eta Michael W. Horsten (Ole Lund Kirkegaarden eleberrian oinarrituta)

Produkzioa: Crone Film Produktion A/S

DONOSTIA

2014/01/03 11:00 h.



GAZTE HARRIGARRIA, T.S. SPIVET

T. S. Spivet bere familia bitxiarekin Montanako arrantxo batean bizi den hamabi urteko jenioa da. Kartografiarako eta asmakerietarako daukan talentuak ordainsaria izango du, zientzia-erakunde batek izen handiko sari bat ematea erabakiko baitu. Maleta hartu eta ia herrialde osoa zeharkatuko du saria eskuratzeko.



Kalifikazioa: Adin guztientzat

Zuzendaria: Jean-Pierre Jeunet

Urtea: 2013

Iraupena: 105 minutu

Gidoia: Jean-Pierre Jeunet eta Guillaume Laurant (Reif Larsenen eleberrian oinarrituta)

Aktoreak: Kyle Catlett, Helena Bonham Carter, Robert Maillet, Judy Davis, Callum Keith Rennie, Julian Richings, Jakob Davies, Dominique Pinon, Niamh Wilson eta Amber Goldfarb

Sariak: Cesar Sariak 2013: hiru izendapen Donostia Zinemaldia 2013: itxiera filma

GASTEIZ
2014/12/27 11:00 h.

URRUÑA
2015/01/04 11:00 h.



JELLY T, TARZAN ESKASA

Ivan Olsen gaixoak arazo ugari ditu. Eskolan burla egiten diote eta haur talde batek galtzak urez betetzen dizkio noiznahi. Etxera iristen denean, berriz, aitak ez dio kasurik egiten. Izan ere, hark Tarzan maite du eta ez ditu bere semearen trebetasun txikiak estimatzen. Baina egun batean, Ivanek aitaren nahia betetzeko eta bere ikaskideei aurre egiteko aukera izango du. Hala, sorgin lagun batek bere desio handiena beteko du: superbotereak emango dizkio! Baina, superbotereak izateak bitzta errazten al du?



Kalifikazioa: Adin guztientzat

Zuzendaria: Michael Hegner

Urtea: 2013

Iraupena: 80 minutu

Gidoia: Michael W. Horsten
(Ole Lund Kirkegaarden
eleberrian oinarrituta)

Produkzioa: Crone Film
Produktion A/S eta European
Film Bonds

BILBO GOLEM ALHÓNDIGA
2014/12/27 11:00 h.

DONOSTIA
2014/12/28 11:00 h.

GASTEIZ
2015/01/03 11:00 h.

IRUÑEA
2015/01/04 11:00 h.



MAYA ERLEA PELIKULA

Maya erlea oso bihurria da eta ez ditu erlauntzeko arauak betetzen. Arau hauetako bat belarditik haratago bizi diren liztorretaz ez fidatzea da. Ezti preziatua desagertzen denean, liztorrak dira susmagarri nagusiak, eta erleek Maya haien konplizea izan dela uste dute. Bere lagunetako inor ez da bere alde agertuko, Willy izan ezik. Elkarrekin abenturaz betetako bidaia abiatuko dute lapurraren bila, eta erleen eta liztorren arteko borroka saihestuko dute.



Kalifikazioa: Adin guztientzat

Zuzendaria: Alexs Stadermann
eta Glenn Fraser

Urtea: 2014

Iraupena: 79 minutu

Gidoia: Fin Edquist

Produkzioa: Flying Bark
Productions

BILBO EiTb - Multibox aretoa
2014/12/24 11:00 h.



OLENTZERO ETA IRATXOEN JAUNTXOA

Anje Piriniotako herrixka eder batean bizi da. Olentzero ezagutzen duen haur bakarra da. Anjek amets bat du: Olentzeroren laguntzailea izatea. Olentzerok, ordea, gazteegia dela uste du eta lantxo bat emango dio: bere oparien tailer magikoa garbitzea. Anjek, aldiz, hanka-sartze txiki bat egingo du. Berriro iratxoa giltzapera bueltatzea lortuko al du? Horretarako, laguntza beharko du, laguntza handia!



Kalifikazioa: Adin guztientzat

Zuzendaria: Gorka Vázquez

Urtea: 2011

Iraupena: 65 minutu

Gidoia: Beatriz Iso eta Xegundo Altolagirre

Produkzioa: Baleuko, S.L.

IRUÑA

2014/12/28 11:00 h.

BILBO GOLEM ALHÓNDIGA

2015/01/04 11:00 h.



TARZAN

John Greystoke eta bere emaztea helikopteroz izandako istripu batean hil dira, Afrikako urrutiko oihan batera egindako espedizio batean. J.J. euren seme txikia, Tarzan bezala ezagunagoa dena, izango da bizirik aterako den pertsona bakarra. Gorila talde batek aurkituko du haurra eta euretako bat bailitzan hartuko dute taldearen baitan. Umeak oihaneko arau gogorrak ikasiko ditu, gizakiarekin inolako harremanik izan gabe. Gazte indartsu bat bilakatzen denean, ordea, Jane Porter ederrarekin topo egingo du. Jane ekologista ausarta da eta Afrikara bidaiatu du William Claytonek iruzur eginda. Greystoke konpainiaren egungo presidentea da Clayton eta botere gehiago lortzea du helburu.



Kalifikazioa: Adin guztientzat

Zuzendaria: Reinhard Klooss

Urtea: 2013

Iraupena: 94 minutu

Gidoia: Reinhard Klooss, Jessica Postigo eta Yoni Brenner (Edgar Rice Burroughsen eleberrian oinarrituta)

Produkzioa: Constantin Film

BILBO EiTB - Multibox aretoa
2014/12/22 11:00 h.



ZIGORTZAILEAK

10 urteko ikasle talde batek *Zigortzaileak* izeneko ezkutuko talde bat osatuko du. Izan ere, eskolako erasoekin nekatuta daude eta ikasle zapaltzaileak zigortu nahi dituzte. Poliki-poliki, eskolako heroiak bihurtuko dira.



Kalifikazioa: Adin guztientzat

Zuzendaria: Arantza Ibarra
(Alfonso Arandiaren parte-hartzearekin)

Urtea: 2010

Iraupena: 87 minutu

Gidoia: Arantza Ibarra

Produkzioa: Alokatu S.L.

Aktoreak: Amaia Aberasturi, Andoni Delavigne, Estibaliz Sarasola, Martin Gandiaga, Pello Madariaga, Asier Vegas, Nikola Zalduegi, Rafael Amargo, Carlos Sobera, Anne Igartiburu, Loli Astoreka, Gurutze Beitia eta Alfonso Torregrosa

BILBO EiTb - Multibox aretoa
2014/12/26 11:00 h.



ZIPI & ZAPE ETA KANIKAREN KLUBA

Zipi eta Zape zigortu egin dituzte uda Esperantza ikastetxean igarotzera. Berreziketa zentro bat da erakundea, eta Falconetti betoker beldurgarriak zorrotz zuzentzen du. Laster ohartuko dira leku hartan jolastea ere debekatuta dagoela. Gauzak horrela, Kanikaren Kluba sortzea erabakiko dute, helduen aginpideari erronka egingo dion umeen erresistentzia, alegia. Adimenaz, ausardiaz eta adiskidetasunaz baliatuta, ikastetxeak ezkututzen duen sekretu misteriotsua ezagutuko dute, bizitzako abenturarik zirrargarriena bizita.



Kalifikazioa: Adin guztientzat

Zuzendaria: Oskar Santos

Urtea: 2013

Iraupena: 92 minutu

Gidoia: Jorge Lara eta Francisco Roncal (Josep Escobarren komikian oinarrituta)

Produkzioa: Zeta Cinema, MOD Producciones, Atresmedia Cine eta Kowalski Films

Aktoreak: Javier Gutiérrez, Álex Angulo, Javier Cifrián, Claudia Vega, Marcos Ruiz eta Christian Mulas

PROIEKZIO-ARETOAK

GOLEM ALHÓNDIGA

Arriquibar plaza, 4
48008 Bilbao
Telf.: (0034) 946 070 767

EiTB MULTIBOX ARETOA

Basurtuko Kaputxinoak, 2
48013 Bilbao
Telf.: (0034) 946 563 000

PRINTZIPE ZINEMAK

San Juan kalea, 10
20003 Donostia
Telf.: (0034) 943 421 247

FLORIDA ZINEMA (1. aretoa)

San Prudencio kalea, 22-24
01005 Gasteiz
Telf.: (0034) 945 231 323

GOLEM BAIONA

Baiona etorbidea, 52
31008 Iruñea
Telf.: (0034) 948 174 141

CINÉMA ITSAS MENDI - LA CORDERIE

29 rue Bernard de Coral
64122 Urruña
Telf.: (0033) 0559 243 745

PROGRAMAZIOA



		BILBO EiTB - Multibox aretoa
2014/12/22	11:00	<i>Zigortzaileak</i>
2014/12/23	16:30	<i>Aita zontzia naiz</i>
2014/12/24	11:00	<i>Olentzero eta iratxoan jauntxoa</i>
2014/12/26	11:00	<i>Zipi & Zape eta kanikaren kluba</i>

* Sarrera: doan (beharrezkoa da HIRU3 Komunitateak banatutako gonbidapena aurkeztea)

* Film guztiak euskarazko bertsioan emango dira.

PROGRAMAZIOA

	BILBO Golem Alhóndiga	DONOSTIA Printzipe Zinemak	GASTEIZ Florida Zinema (1. aretoa)	IRUÑEA Golem Baiona	URRUÑA Cinéma Itsas Mendi - La Corderie
	11:00	11:00	11:00	11:00	11:00
2014/12/27	<i>Maya erlea pelikula</i>	<i>Dragon Ball Z; Battle of gods</i>	<i>Jelly T, Tarzan eskasa</i>	<i>Ernest & Celestine</i>	<i>Blackie & Kanuto</i>
2014/12/28	<i>Dinosauroen artean</i>	<i>Maya erlea pelikula</i>	<i>Ernest & celestine</i>	<i>Tarzan</i>	<i>Freddy Igeldegi</i>
2015/01/03	<i>Ernest & Celestine</i>	<i>Gazte harrigarria, T.S. Spivet</i>	<i>Maya erlea pelikula</i>	<i>Dinosauroen artean</i>	<i>Bram Barrabas</i>
2015/01/04	<i>Tarzan</i>	<i>Ernest & Celestine</i>	<i>Blackie & Kanuto</i>	<i>Maya erlea pelikula</i>	<i>Jelly T, Tarzan eskasa</i>



SARRERA

1€

* Film guztiak euskarazko bertsioan emango dira.